

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko URTARRILAREN 11ko

HERRI BILTZARRA

Bi mila eta hogeita bateko urtarrilaren hamaikagarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da "l'Aiglon" zineman. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Christiane Hargain-Despéries, ordea, Carmen Gonzalez, Philippe Bacardatz, herri kontseilariak

Ahalordeak: Christiane Hargain-Despéries andereak Jean-Noël Magis jaunari, Carmen Gonzalez andereak Corinne Othatceguy andereari, Philippe Bacardatz jaunak Argitxu Hiriart-Urruty andereari.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatzen die 2020ko abenduaren 5eko Herri Biltzarraren akta onartzea.

Aho batez onartua.

01 – Euskal Hirigune Elkargoa: Bizitegien Tokiko Programa (Auzapezak eta Magis jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei eskatu diete 2020-2025erako Ipar Euskal Herriko Bizitegien Tokiko Programa proiektuari buruzko iritzia ematea, Euskal Hirigune Elkargoak erabaki duenaren arabera, eta azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala,

eta, honako hiru elementuak kontuan izanik:

1 – gure herriaren eremuan bizitegien 6 urteko programa horretan definitu diren erronka, norabide eta ekintzak ikusirik;

2 – kontuan izanik, gure herriaren kasuan, 2019an bozkatu zen THP-ren norabidea, hots SRU legearen xedapenak indarrean sartu aitzin (etxebizitza lagunduak %25), Bizitegien Tokiko Programarekin bat datorrela bai ekoizpenari bai etxebizitzaren tipologiari dagokienez;

3 – kontuan izanik halere, hobe izan zitekeela THP hau Euskal Elkargoaren LKE indarrean sartu ondotik onartzea;

Auzapezak alde bozkatzea proposatzen du baina ñabardura batzuekin.

Gehiengoz onartua.

Bozkatu ez dutenak: Vincent Goytino, Peio Etcheleku, Jean-Jacques Lassus, Jean-François Lacosta.

Kontra bozkatu dutenak : Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

02- Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa: herri arteko errepide, sare eta antolamendu zerbitzuaren esku hartzeentzako hitzarmena (Magis jaunak aurkeztua).

Biltzarkideei proposatu die Auzapezari baimena ematea APGL-rekin hitzarmen baten izenpetzeko laguntza tekniko eta administratibo batentzako, 2021-2024 aldirako, errepideetako obren eskaera orrien esparru-hitzarmenaren arraberritzeko, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

03 – SDEPA: aireko banaketa sare batentzako hitzarmena (Goytino jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea, SDEPArekin Haltsuko bidean Tentsio Baxuko kable baten ordezkatzeko hitzarmen baten izenpetzeko, azalpen ohar sintetikoak aurkeztua den bezala.

Aho batez onartua.

04 – Txakurrak Sindikatua: estatutuen moldatzea (Barbier jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Txakurrak XBHAS-aren (SIVU) estatutuen aldaketa onartzea, Luhuso herria sartu ondotik.

Aho batez onartua.

Yolande Huguenard anderea gelatik atera da.

05 – Musdehalsuenbordako salmenta: lur sailen eguneratzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrak 2018ko uztailaren 23an erabaki zuen AL n°195-182 eta 180 lur sailak Orpi enpresari saltzea (2 102 m²) 210 000 €-ren truke.

Salmenta horren ondotik katastroko zerbitzuek lur sailen zenbakitze berria egin dute.

Herri Biltzarkideei eskatu dien zenbakitze horretaz deliberatzea, jakinez azalera eta prezioa ez direla aldatzen.

Gehiengoz onartua.

Jean-François Lacostak ez du bozkatu.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Yolande Huguenard anderea gelan sartu da.

06 –Langilegoa: enplegu baten sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Giza baliabideen arduradunaren ordezteko, Auzapezak Herri Biltzarkideei proposatu die denbora osoko lurralde erredaktore enplegu iraunkor baten sortzea 2021eko urtarrilaren 12tik goiti.

Aho batez onartua.

07 – Langilegoa: formakuntza plan bateratua (Auzapezak aurkezturik).

Herri Biltzarrari eskatzen zaio herriko langileentzako 2020-2022 hiru urteko Formakuntza Bateratu Planaren onartzea, Lurralde Funtzio Publikoaren Frantses Zentroarekin, azalpen ohar sintetikoan aurkeztu bezala.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaldu dizkie, Azalpen ohar sintetikoan agertzen diren eta bere eskuordetzaren esparruan hartu dituen erabakien berri.

Solasgai guztiak landurik, saioa 21:25ean bukatu da.